

Uztailak 4, 5 eta 6. DONOSTIAko EHU.

9:00-14:00

Ikaslearen garatze-prozesua bermatzeko, familia nahiz ikastetxeko eragile guztiek norabide berean begirada jartzea funtsezkoa da, eta gaur egungo eskolak badu hemen garrantzi handia duen erronka. Erronka honi modu eraginkorrean erantzun ahal izateko, testuinguru berriak kontuan hartzea beharrezkoa dugu.

Testuinguru berriari erantzuteko lidergoa zuzendaritza taldeari dagokio ezinbestean. Beraz, nola aurre egin erronkari? Zein baliabiderekin? Gure esperientziatik abiatuta, Pedagogia Sistemikoa hainbat baliabide eskaintzen dizkigu zuzendaritza funtzioan gaudenoi, dagokigun lekuan kokatu gaitezen, irakasleei baliabideak eskainiz eta, aldi berean, familiekiko hartu-emanen sendotuz. Horrela lortuko baitugu ikaslearen garatze-prozesuan begirada beretik aritzea, eta bide batez, hezkuntza komunitateko kide guztiok partaide sentiaraztea erraztuko du.

➤ Norentzat

Zuzendaritza lanetan ari diren eta hurrengo ikasturtean zehar arituko diren zuzendari, ikasketa buru, idazkari, kontsultore, aholkulari edota koordinatzaileentzat.

➤ Landuko diren gaiak

- Eskola bizitzaren zerbitzura. Eskolaren nortasuna.
- Testuingurua aintzat hartu. Eskolaren gaur eguna. Non jartzen dugu begirada?
- Zuzendaritza taldeari dagozkion ardurak eta lekua ikastetxean.
- Irakasleekiko begirada. Nola indartu irakasleria. Bakoitzaren tokia ikastetxean.
- Ikaslea indartzen duen begirada.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien pertenezia garatzeko bideak eta estrategiak.

➤ Metodologia

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Begirada sistemikoan oinarrituta, esperientziatik eta fenomenologiatik abiatuko gara, parte-hartzaileen beharretara egokituz. Egoera konkretuak irudikatuko ditugu, baliabideak modu praktikoan eskainiz eta landuz.

- * **Iñaki ARANA OREGI.** Aholkulari sistemikoa. Enpresa Zientzian eta Psikologian lizentziatua, Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren zuzendaria da Euskal Herrian, Dr. Emilio Cárdenas unibertsitate mexikarraren eskutik.
- * **Iratxe VAZQUEZ CECIAGA.** Antzuolako Herri Eskolako zuzendaria da gaur egun. Pedagogia Sistemikoan diplomatua da eta CUDEC Pedagogia Sistemikoa Formakuntzaren kolaboratzailea da Euskal Herrian.